


Colectivos sociales, sindicatos y las redes para la inclusión social solicitan que el gobierno vasco incremente la cuantía de la RGI en función de la subida del SMI.

No es justo, ni solidario que las personas empobrecidas de nuestra sociedad sean las que vean recortados sus derechos y condiciones de vida, en estos momentos de crisis.

Las organizaciones sindicales, colectivos sociales y "Ekain-Red para la Inclusión social", y ante la comunicación de Gobierno Vasco de que no va a incrementar la RGI en función del Salario Mínimo Interprofesional sino del IPC, solicita al Gobierno Vasco la rectificación de esa decisión e incremente las cuantías de la RGI en función de la subida del Salario Mínimo Interprofesional.

Según estudios del propio Gobierno Vasco en estos años de crisis han aumentado los índices de pobreza, exclusión o dificultades para llegar a fin de mes; tanto entre quienes tienen un empleo como entre aquellas familias que se encuentran desempleadas. Ello se debe, entre otras razones, a esta política de recortes en las prestaciones sociales. Esta es la dramática consecuencia de una decisión política que apuesta por no garantizar a las personas unos ingresos mínimos que puedan facilitar una vida un poco más digna.

Por otro lado, cabe destacar que la RGI no desincentiva la búsqueda de empleo: actualmente 12.750 personas perceptoras (el 19,5%) ya están trabajando y cobran la RGI como complemento a los bajos salarios que perciben por trabajar. Y otras 16.215 (el 24,8%) son pensionistas, es decir no están en edad de trabajar.

Actualmente (datos de Lanbide de diciembre 2016) 136.173 personas están en paro; y 274.324 demandan un empleo. Por lo tanto, no podemos seguir pensando que el empleo es el único elemento garante de la redistribución de la riqueza y de la cohesión social. El empleo ya no garantiza el acceso a unos ingresos; por ello hoy es más necesario que nunca reforzar la pro



Gizarte-kolektiboek, sindikatuek eta gizarte-inklusiorako sareek Eusko Jaurlaritzari eskatu diote LGSaren igoeraren arabera igo dezala DSBEa

Krisi-egoera honetan, ez da bidezkoa, ez eta solidarioa ere, gure gizarteko pertsona pobretuen eskubideak eta bizi-baldintzak murriztea.

Eusko Jaurlaritzak jakinarazi du Kontsumoko Prezioaren Indizearen (KPI) arabera gaurkotuko duela Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE), eta ez Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren (LGS) igoeraren arabera. Horren aurrean, sindikatuek, gizarte-kolektiboek eta Ekain gizarteratzearen aldeko sareak eskatu diote erabaki hori bertan behera uzteko eta DSBEari dagozkion diru kopuruak LGSaren igoeraren arabera igotzeko.

Eusko Jaurlaritzak berak egindako ikerketa batzuek diotenez, pobrezia, bazterketa eta hilabete amaierara heltzeko zailtasunak handitu egin dira krisia hasi zenetik, lanean ari direnentzat zein langabezian daudenentzat; besteak beste, gizarte-prestazioak murrizteko politikaren ondorioz. Erabaki politiko horrek ondorio larria dakar pertsonentzat: ez zaizkie gutxieneko diru-sarrerak bermatzen, eta ez zaie aukerarik ematen bizitza apur bat duinagoa izateko.

Bestalde, azpimarratu beharra dago DSBEak ez duela geldiarazten pertsonek lana bilatzea: gaur egun, DSBEa jasotzen duten pertsona guztien % 19,5 –hots, 12.750 pertsona– lanean ari da, eta beren lanaren truke jasotzen dituzten soldata baxuen osagarri da DSBEa. Beste 16.215 (hots, % 24,8) pentsiodunak dira, eta, hortaz, ez daude lan egiteko adinean.

Gaur egun, Lanbidek 2016ko abenduan emandako datuen arabera, 136.173 pertsona daude langabezian; eta 274.324 pertsona lan bila dabiltza. Hori guztia kontuan hartuta, ezin dugu pentsatu lana denik aberastasunaren banaketa eta gizartearen kohesioa bermatzeko elementu bakarra. Gaur egun, lana edukitzeak ez du diru-sarrerarik ziurtatzen; horregatik, inoiz baino

tección social tanto para permitir a las personas que no tienen ingresos el acceso a una renta mínima, como para mantener un cierto nivel de cohesión social.

No es justo, ni ético, que las personas precarizadas y empobrecidas sean las que soporten la merma de derechos y peores condiciones vitales en los momentos más difíciles.

Por todo ello, las organizaciones abajo firmantes, solicitamos el fortalecimiento de la protección social en Euskadi y, en consecuencia, la subida de la RGI en los mismos porcentajes que se ha incrementado el Salario Mínimo Interprofesional para este año 2017. Además, de dar marcha atrás al recorte del 7% -aplicado en los últimos 5 años- en las cuantías de las prestaciones gestionadas por Lanbide: Incentivos al Empleo, Renta de Garantía de Ingresos, Complemento de Pensiones y Prestación Complementaria Vivienda.

## ■ EKAIN-REDES PARA LA INCLUSION SOCIAL:

Ekain agrupa a 6 redes de entidades de acción social de Euskadi que trabajan en el ámbito de la Inclusión Social:

- CONGD EUSKADI: Coordinadora de ONG de Desarrollo de Euskadi
- EAPN EUSKADI: Red Europea de lucha contra la pobreza y la exclusión social en Euskadi
- GIZATEA: Asociación de Empresas de Inserción del País Vasco
- HARRESIAK APURTUZ: Coordinadora de ONG de Euskadi de Apoyo a Inmigrantes
- HIREKIN: Asociación de entidades de iniciativa e intervención social de Euskadi
- REAS EUSKADI: Red de Economía Alternativa y Solidarias.

Redes que agrupan a 300 entidades y cuentan con más de 10.000 personas (profesionales y voluntarias) que trabajan en diversos ámbitos: inclusión social, empleo, servicios sociales, cooperación para el desarrollo, lucha contra la pobreza y la exclusión social, desarrollo comunitario, economía solidaria, etc.

## ■ COLECTIVOS SOCIALES:

Argilan-ESK, Argitan (Centro Asesor de la Mujer, Barakaldo), Asociación de Trabajadoras de Hogar de Bizkaia, Baietz Basauri!, Berri-Otxoak (Barakaldo), Brujas y Diversas, Danok Lan (Galdakao), Elkartzen, Mujeres del Mundo, Posada de los Abrazos/Besarkatuz, PAH Bizkaia-Kaleratzerik EZ!; SOS Racismo; Erletxea (Punto Información y Agitación Social, Irún); Plataforma de Afectad@s por Lanbide de Gipuzkoa.

## ■ AGRUPACIONES DE PENSIONISTAS:

Asociación de Jubilados y Pensionistas por la Democracia-DEPE; Pentsionistak Martxan Bizkaia; Arabako Pentsionistak Lanean, Gipuzkoako Duintasuna Elkarteak.

## ■ SINDICATOS:

ELA, LAB, CCOO, UGT, ESK, STEILAS, CGT y CNT.

beharrezkoagoa da gizarte-babesa indartzea, diru-sarrerarik ez duten pertsonek gutxieneko soldata bat izan dezaten eta gizarteak nolabaiteko kohesioa izaten jarrai dezan.

Ez da bidezkoa, ez eta etikoa ere, gehien pobretu diren pertsonen eskubideak murriztea eta haien bizi-baldintzak okerragotzea bizi dugun egoera honetan.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen dugun erakundeek eskatzen dugu Euskadiko gizarte-babesa indartzeko, eta, hortaz, lanbide arteko gutxieneko soldata igo den ehuneko berean igo dadila DSBEa ere 2017an. Horrez gain, Lanbidek kudeatutako prestazioetako diru kopuruetan azken bost urtean izan den murrizketa (% 7) desagerrarazteko eskatzen dugu, besteak beste, prestazio hauetan: enplegu-pizgarriak, diru-sarrerak bermatzeko errenta, pentsio-osagarria eta etxebizitzarako prestazio osagarria.

## ■ EKAIN, GIZARTERATZEAREN ALDEKO SAREA:

Euskadin gizarteratzearen alde lan egiten duten gizarte-ekintzako 6 elkartek osatzen dute Ekain sarea:

- GGKE EUSKADI: Garapenerako GKEen Euskadiko Koordinakundea????.
- EAPN EUSKADI: pobreziaren eta giza bazterketaren aurkako europar sarea Euskadin.
- GIZATEA: Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkartea
- HARRESIAK APURTUZ: Etorkinei laguntza emateko Euskadiko GKE koordinakundea.
- HIREKIN: Euskadiko gizarte-ekimeneko eta esku-hartzeko entitateen elkartea
- REAS EUSKADI: Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea.

Sare horiek 300 elkarte eta 10.000 pertsona baino gehiago biltzen dituzte, profesionalak nahiz boluntarioak, zeinak hainbat esparrutan ari baitira lanean: gizarteratzea, enplegua, gizarte-zerbitzuak, garapenerako lankidetza, pobreziaren eta gizarte-bazterketaren kontrako borroka, garapen komunitarioa, ekonomia solidarioa, etab.

## ■ GIZARTE-KOLEKTIBOAK:

Argilan-ESK, Argitan (Emakumeentzako Aholku Etxea, Barakaldo), Bizkaiko Etxeko Langileen Elkartea, Baietz Basauri!, Berri-Otxoak (Barakaldo), Sorgin eta Anitzak, Danok Lan (Galdakao), Elkartzen, Munduko Emakumeak, Posada de los Abrazos/Besarkatuz, SOS Arrazakeria eta PAH Bizkaia-Kaleratzerik EZ; Plataforma de Afectad@s por Lanbide de Gipuzkoa; Erletxea (Informazio eta Agitazio Soziala, Irun).

## ■ PENTSIODUNEN TALDEAK:

Asociación de Jubilados y Pensionistas por la Democracia-DEPE; Pentsionistak Martxan Bizkaia; Arabako Pentsionistak Lanean, Gipuzkoako Duintasuna Elkarteak.

## ■ SINDIKATUAK:

ELA, LAB, CCOO, UGT, ESK, STEILAS, CGT eta CNT.